

Gurasoen bukaerako ebaluazioa

***2011-2012. ikasturteko
emaitza orokorren ondorioak***

GALTZAGORRI ELKARTEA
2012ko Urria

Gurasoen bukaerako ebaluazioaren emaitzak aztertu ondoren, ebaluatuak izan diren herrietan (Amurrio, Ermua, Markina, Oñati eta Tolosa), *Bularretik Mintzora* egitasmoaren ekimenen eragin kuantitatibo eta kualitatiboen ondorio orokor hauek atera ditzakegu:

1. Bukaerako ebaluazio honetan kontuan izan diren irakurtzeko zaletasuna definitzen duten **16 adierazleen** aldakortasunari dagokionez, gehienetan positiboa izan da. Zehazki, aldagaien aldakortasuna honako hau izan da:

Hobekuntza nabarmena izan duten aldagaiak hauek izan dira:

- Irakurketarekiko jarrerak
- Ipuina kontatzeko estrategiak
- Kontatzeko inguruko baldintzen kontrola
- HGLko ezagutza maila orokorra
- HGLko baliabideen adin egokiaren informazioa
- HGLko informazio bideen erabilera
- HGLko informazio bide espezializatuak erabiltzea
- Liburutegiko maileguaren erabilpena eta baliabide mota

Asko hobetu diren aldagaiak, beste hauek dira:

- Haur kankak abestu seme-alabei
- Kontakizunaren bizipenen hobekuntza
- Haurren arretaren iraupena
- Liburutegietara joatearen maiztasuna

Hobekuntzarik izan ez duten aldagaiak hauek dira:

- Ipuina kontatzearen maiztasuna
- Ipuina nork kontatzen duen
- Haur Literaturako baliabideen erosketa

Beraz, 16 aldagaietatik, **12tan** hobekuntza (nabaria edo ugaria) izan da.

Orokorrean, esan daiteke bada, irakurtzeko zaletasuna finkatzen ari dela ebaluatuak izan diren herri horietako familietan.

Zehazki, aldagai bakoitzaren aldakortasuna ondoren zehazten da:

1. Irakurketarekiko jarrerari dagokionez

Hasierako emaitzekin konparatuz, orokorrean, irakurketaren zergatiei garrantzia gutxiago ematen diete gurasoek, arrazoi batengatik bereziki. Bukaerako galdekizunean, hasierakoan ez bezala, beste aukera bat eskaintzen zitzairen; “*Besterik*” hain zuzen ere. Aukera honetan sartzen ziren “*komunikazioa indartzeko*” eta “*erlaxatzeko*” bezalako zergatiak. Aukera hau (“*Besterik*”), **%44ak** aukeratu du, bigarren zergatian bihurtuz.

Horregatik esan daiteke, aldagai honetan aldaketa baikorra nabarmentzen dela: orain, haurrarekin irakurtzen ari direnean, gurasoek, plazerarekin, komunikazioarekin eta lasaitasunarekin gehiago lotzen dute irakurketa bera, eta hasierako ebaluaketarekin konparatuz, garrantzi gutxiago ematen diote irakurketaren beste helburuei, hala nola, “*distraitzeko*”, “*gauzak ikasteko*” eta “*jolasteko*” irakurtzeari.

Emaitza horiek adierazten dute Bularretik Mintzora helburuetariko bat lortu dela neurri handi batean; haurren irakurketa plazerarekin, komunikazioarekin eta afektibitatearekin lotzea, hain zuzen ere.

2. Haur kantak seme-alabei abesteari dagokionez

Aldagai honetan ere hobekuntza nabaria gertatu da. Dirudienez, *Bularretik Mintzora* egitasmoak sortu dituen baliabideak (CDak kantuekin, esku-jolasekin, poesiekin, ...) pixkanaka gurasoengana eta haurrengana iristen ari dira, euren ohituretan eragin baikorra sortuz. Horrez gain, gurasoen formazioan, behin eta berriz azpimarratzen da kantuen eta ahozkotatasunaren garrantzia, eta badirudi, aholku horiek ere, eragina izan dutela.

Emaitzak argiak dira, gurasoen artean % 58a bazi da haur kantak haurrari abesten dizkieten gurasoen kopurua.

3. Ipuina kontatzearen maiztasunari dagokionez

Ipuinak kontatzearen maiztasunari dagokionez, esan daiteke, orokorrean ez dela aldaketa nabarmenik azaldu hasierako ebaluaketarekin konparatuz. Dena dela, “*muturreko*” maiztasunak (“*inoiz ez*” / “*egunero*”) gutxitu egin dira: **%6an gutxitu**, hain zuzen ere. Aldiz, erdikoak (“*batzuetan*” / “*sarritan*”) ugartu egin dira, **%9an**. Zentzu batean, emaitza baikorra da: ipuina kontatzearen maiztasuna neurtzean, gehienak “*sarritan*” egiten dutela diotelako (**%46ak**). Bestetik, aurrerago ikusiko dugun bezala, orain gurasoek ipuina kontatzeko beste baldintza batzuk ere kontuan hartzen dituztelako, kontakizunaren baldintzak hain zuzen ere (isiltasuna egotea, erabateko arreta izatea, erlaxatuta / motibaturik egotea). Beraz, ipuinaren kontakizunaren kalitatea hartzen dute gogoan.

4. Ipuina kontatzen duen pertsonari dagokionez

Aldagai honetan ez da aldaketa nabarmenik azaldu, hasierako ebaluaketarekin konparatuz.

Orokorrean, bukaerako ebaluazioaren arabera, ipuinaren kontakizunak emakumearen eskuetan jarraitzen du.

Ohitura hau aldatzeko, hau da, haur literaturan gizonaren parte hartzea ugartzeko, *Bularretik Mintzora* bezalako irakurtzeko zaletasuna sustatzeko egitasmoak bakarrik ez dira nahikoak. Ezinbestekoa da, hezkidetzan lantzen duten egitasmo hezitzaile orokorren laguntza. Haurra hezterakoan, haurrarekin komunikatzerakoan, maitasuna adierazterakoan, zaintzerakoan, jolasterakoan, haurrari ipuina kontatzerakoan... gizonak gizartean azaltzen dituzten jarrerak eta ohiturak hezkidetzarantz aldatzea beharrezkoa da.

5. Kontakizunean haurrarekin izandako bizipenei dagokionez

Orain, gurasoen %70ak dio, zentzu batean edo bestean, kontakizunetan haurrarekin dituen bizipenak hobetu egin direla.

Batzuen ustez, (%31), “haurrek gehiago eskatzen diote ipuinak kontatzeko”; beste %23ak dio, orain “haurrak errazago adierazten dituela sentimenduak”, eta %13ak uste du “euren arteko komunikazio afektiboa aberastu dela”.

6. Ipuina kontatzeko estrategiei dagokionez

Ipuina kontatzeko estrategiei dagokionez, bukaerako ebaluaketaren emaitzen arabera, aldaketa baikor batzuk eman dira. *Orain guraso gehiago daude estrategia bat baino gehiago erabiltzen dituztenak: gehiago daude ipuina irakurtzen dutenak, %14 gehiago; gehiago daude, baita ere, beste estrategiak erabiltzen dituztenak, %17 gehiago, eta ipuinaren irudia erakustera edo komentatzera mugatzen ez direnak bakarrik. Azken aldaketa honek esan nahi du estrategia edo kontatzeko baliabide gehiago eskuratu dituztela, gurasoen formaziorako ekintzen bitartez, besteak beste.*

Beste alde batetik, oraindik badago gutxi erabiltzen den estrategia bat: “Ahoz kontatzea, libururik gabe”, (%21a), nabiz eta ipuinak ahoz kontatzen dituzten gurasoen kopurua %5ean hazi. Egungo gurasoak ez daude ohitura ahozkotasuna erabiltzen, ez dute ohiturarik euskarri fisikorik gabe ipuinak kontatzeko. Seguru asko eurak ere “irudiaren aroan” hezi eta hazi direlako.

Dena dela, irakurtzeko zaletasuna sustatzerakoan, helburu hau lortzeko lanean jarraitzea behar-beharrezkoa da, ahozko transmisioaren garrantzia azpimarratuz eta hitzaren indarra aldarrikatuz.

7. Kontatzeko inguruko baldintzen kontrolari dagokionez

Kontatzeko baldintzei dagokionez, bukaerako ebaluaketaren emaitzetan hobekuntza nabaria izan da. *Orain, gurasoek gehiago zaintzen dituzte kontakizunaren inguruko baldintzak; hau da, zein egoeratan kontatu. Gebien kontrolatzen duten baldintza norberaren egoera psikoafektiboa zaintzea da (erlaxaturik eta motibaturik egotea): Hain zuzen ere, **%26 gehiagok** zaintzen du baldintza hori.*

Beste bi baldintzei ere, orain garrantzia handiagoa aitortzen diete: haurraren arretari eta isiltasunari, alegia.

Datu horiek adierazten dute orain gurasoek kontakizunaren kalitatea gehiago zaintzen dutela, momentu garrantzitsua dela uste dutelako, ongi kontatu nahi dutelako...

Bularretik Mintzorako formazio ekimenek eta, zentzu honetan, eskaini diren hainbat gomendiok (ikastaroetan, bitzaldietan, foiletetan, ...) eragina izan dutela ondorioztatu daiteke.

8. Haurraren arretari dagokionez

Aldagai honi dagokionez ere, aldaketa nabarmenak daude bukaerako ebaluaketan. Hala ere, zenbait alderdi azpimarratu behar dira, aldaketa horiek ulertzerakoan. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da hasierako ebaluaketan aukeran jartzen ziren erantzunen artean beste bat eskaintzen zela: “ipuinaren arabera”, hain zuzen ere. Hauxe izan zen aukeratuena, beste denbora tarteen emaitzak baldintzatuz. Horregatik, aukera hori baztertu egin zen bukaerako galdekizunean.

Beste alde batetik, kontuan izan behar da hasierako ebaluazioan galdekizuna erantzun zuten gurasoen %45ak 5 urteko haurrak zituela. Bukaerakoan aldiz, guraso guztien haurrek zituzten 5 urte. Alderdi honek ere emaitzak baldintzatzen ditu. Normala denez, zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta arreta mantentzeko ahalmen handiagoa izango du haurrak. Hau da, garapen psikoebolutiboak berak hobetzen ditu haurren arretari eusteko ahalmenaren emaitzak.

Dena dela, *Bularretik Mintzora egitasmoaren barruan, eskolaren esparruan irakasleekin landu eta proposatu diren haur literaturarekiko ekimen sistematikoek haurrengan obitura batzuk sortu dituzte, arreta mantentzerakoan ere eragin onuragarriak ekarri. Horregatik, orain haurren **%61ak** arretari euts diezaioke 10 minutu baino gehiagoz.*

9. Haur literaturako baliabideen erosketari dagokionez

Haur Literaturako baliabideen erosketari dagokionez, bukaerako emaitzek diotenez, hasierakoekin erkatuz, orokorrean, maiztasunak beherantz egin du. Orain guraso gutxiago dira baliabide hauek “sarri” erosten dituztenak: **%11 gutxiago**. Joera honen arrazoiak bi izan daitezke:

1. Alde batetik, *Bularretik Mintzora* egitasmoak irakurtzeko zaletasuna sustatzerakoan liburutegiak duen garrantzia azpimarratzen duela. Horregatik, eskola, familia eta liburutegia elkarlanean jarri ditu helburu hau lortzeko. Aurrerago ikusiko dugun bezala, gurasoak eta haurrak, orain, modu esanguratsuan, gehiago hurbiltzen ari dira liburutegietara, haur literaturako baliabideen mailegua ugarituz: hau da, orain gehiago mailegatzen da eta gutxiago erosten da.
2. Beste alde batetik, azken urteetan gure gizartea pairatzen ari den krisi ekonomikoaren eragina dago. Kontsumoaren adierazle guztiek behera egin dute, kultur produktuetan eta haur literaturako baliabideetan ere nabarmena da kontsumo jaitsiera hori.

10. Haur literaturako baliabideen adin egokiari dagokionez

Bukaerako emaitzek adierazten duten bezala, *Bularretik Mintzora* egitasmoaren helburuetariko bat, Haur Literaturako informazio maila zabaltzea gurasoengan, betetzen ari da. Orain gurasoen **%67ak** dio “nahiko” informazio baduela Haur Literaturako baliabideen adin egokitasunari buruz. Beraz, lehen baino **%26 gehiago** dira.

Egitasmoaren baitan banatzen diren bibliografia gomendioak, foiletoak eta beste informazioak gurasoengana iritsi direla ondorioztatu daiteke. Orain, gurasoek baliabideen adin egokitasunaz informazio gehiago dutela erantzun baitute.

11. HGLri buruzko informazio bideen erabilerari dagokionez

Aurreko aldagaiaren hobekuntzarekin gertatu den bezala, informazio bideei dagokionez, *Bularretik Mintzora* egitasmoaren ekintzei eta baliabideei esker – eskoletan eta liburutegietan banatu diren informazio, baliabide, gomendio, bibliografia... –, *guraso gehiago dago orain, haur literaturari buruzko informazioa eskuratzekoan, bide espezifikokoak erabiltzen dituenak. Hain zuzen ere,, %16 gehiago.*

Emaitza horiek adierazten dute gainera, orain gurasoengan haur literaturarekiko interesa eta jakin-mina handiagoa dela. Azken finean, gurasoak haurren irakurtzeko zaletasuna sustatzeko bitartekari egokiak bihurtzeko behar duten baldintzetako bat horixe da: informatuak egotea. Eta xede hori, *Bularretik Mintzora* egitasmoari esker lortzen ari da.

Dena den, arlo honetan badago zer hobetua: oraindik ere gurasoen %68ak informazio “gutxi” duela dioelako.

12. HGLko informazio bide motari dagokionez

Aldagai honetan ere, txikia bada ere, hobekuntza gertatu da. Pixkanaka, gurasoak informazio bide espezializatuera zuzentzen dira gehiago HGLri buruzko informazioa eskuratzerakoan. *Orain, hasieran baino guraso gehiago zuzentzen dira liburutegietara, (%12 gehiago) eta Galtzagorri elkarte web gunera (%2 gehiago).*

Datu honek adierazten du *Bularretik Mintzora* egitasmoak izan duen eragina, bereziki, liburutegietan. Egitasmoa bide onetik ari dela irakurtzeko zaletasuna sustatzen, alegia.

Dena den, oraindik ere, “beste bideak” (eskolak berak eta beste gurasoek) eragin handia dute informazioa eskuratzerakoan: %54ak erabiltzen ditu bide horiek.

13. Liburutegira joatearen maiztasunari dagokionez

Irakurtzeko zaletasuna suspertzerakoan, ezaugarri garrantzitsuenetariko bat liburutegiaren erabilpena da. Zentzu honetan, bukaerako ebaluazioaren emaitzek azaltzen duten bezala, hasierako ebaluaketarekin konparatuz, hobekuntza oso nabarmena gertatu da. Ebaluatuak izan diren gurasoengan liburutegira joateko ohitura sortu da (hasieran baino %42 gehiago **doaz orain**). Joatearen maiztasunari dagokionez, oraindik ere ohitura berri honekin hasi berriak diren guraso eta haurrek hilean behin edo urtean hiruzpalau aldiz doazela diote; hala eta guztiz ere, maiztasun hori areagotzearen joera nabarmentzen da.

Argi dago bada, Bularretik Mintzora egitasmoak liburutegietara erakarri dituela gurasoak eta haurrak. Hau izan da bazkonde gehien izan duen aldagaia.

14. Maileguaren erabilpenari eta baliabide motari dagokionez

Haur Literaturako baliabideen mailegu motari dagokionez, hobekuntza txiki batzuk gertatu dira. Alde batetik, *ipuinak gehiago mailegatzen dira nabarmen hasierako emaitzekin konparatuz. (%36a gehiago).* Datu hau irakurtzeko zaletasuna suspertzerakoan, adierazle garrantzitsu bat da. Zentzu honetan, bide ona hartu da.

Hobekuntza honen arrazoietakoa bat, *Bularretik Mintzora* egitasmoaren ekintza zehatz baten eragin zuzena dela esan daiteke: *Motxila Txikia*, hain zuzen ere. Ekintza honek eskola, etxea eta liburutegia lotzen ditu, eta familia bakoitza urtean hiruzpalau aldiz pasatzen da liburutegitik liburu bat maileguan eramateko. Honek mailegua eta liburutegiko bazkideen kopurua ugaritu ditu, noski.

Aldiz, haur poesiaren mailegu kopurua ez da hazi: %2ak bakarrik mailegatzen du, lehen baino %1 **gehiagok**. Tamalez, haur literaturako baliabide mota honek ez du oraindik guraso eta haurrengandik izan behar duen erantzunik jaso. Helburu hori lortzeko estrategia berri batzuk abian jarri behar direla argi dago.

Erantzun honek zenbait hausnarketa eragin ditu egitasmoaren baitan. Alde batetik, haur poesiaren ekoizpen editoriala txikia da beste genero batzuen ondoan, eta horrek ez du mailegua errazten. Beste alde batetik, poesia beste euskarri batzuetan barreiatua dago (CD-ak,

genero desberdinak nahasten dituzten liburuak...) eta honek nahasmena sor dezake irakurlearengan, ezin baitu beti garbi identifikatu. Azkenik, galdekizunetan egiten den galderaren formulazioa ere ez da garbigia, *Bularretik Mintzora*ren filosofian poesiaren adiera oso zabala baita: hitz jolasak, esku jolasak, igarkizunak, elkarrizketa errimatuak...

Teknologia berriekin zerikusia duten baliabideen mailegua (DVDak, joko interaktiboak,...), nahiz eta ipuinen maileguarekin konparatuz askoz ere txikiagoa izan, ugaritu egin da, **%10ean hazi da, %47ak** mailegatzten ditu orain baliabide hauek. Datu horiek adierazten duten bezala, ezin da ukatu baliabide desberdinez hitz egiterakoan, teknologia berriek haur eta gurasoak erakartzen dituztela. Dena den, oraingoz, ipuinak lehenetsuta du teknologiaren aurretik, baina baliabide teknologikoak haur poesiaren aurretik doaz, hala ere.

15. Bularretik Mintzora egitasmoari esker lortu diren helburuei dagokionez

Bukaerako ebaluazioan, gurasoei aukeran jarri zitzaizen *egitasmoaren helburuen lorpen maila*. *“Nabikoa” izan dela diote %49k. “Haur Literaturako baliabideak ezagutu” eta “komunikazio afektiboa indartu haurrarekin” dira gebien hobetu diren arloak*, *Bularretik Mintzora* egitasmoari esker. Beste hiru helburuen lorpena bigarren mailan jartzen dute: “Ipuin bat kontatzen ikasi”, “Haurren ahozko garapenari buruzko aholkuak eskuratu” eta “Haurra txikitatik estimulatzeko gaitasunak eskuratu”.

16. Bularretik Mintzora materialaren balorazioari dagokionez

Guraso gebienek ondo baloratzen dituzte Bularretik Mintzora egitasmoak sortu dituen Haur Literaturako baliabideak eta materialak; %74ak “onak” eta %16ak “oso onak” direla dio.

Irakurtzeko zaletasuna sustatzerakoan, materiala erakargarria izatea ezinbesteko baldintza da, eta zentzu honetan helburua betetzen ari da. Beste materialekin konparatuz, gomendatu diren liburu-ipuinek balorazio zertxobait hobea lortzen dute.

17. Bularretik Mintzora egitasmoaren hedapenari dagokionez

Duela 4 urte *Bularretik Mintzora* abian jarri zenetik, egitasmoaren “zenbakiak” nabarmen handitu dira.

Herriei dagokionez, 2008-2009. ikasturtean, **5** izan ziren egitasmoarekin hasi zirenak. Gaur egun, lau urte geroago, **14 herri** dira. Beraz, **%180an hazi da** *Bularretik Mintzora*ren dauden herrien kopurua.

Irakasleei dagokionez, hasieran **116** ziren. Orain, **330 irakasle** dira; **%184a** gehiago, beraz.

Egitasmoan parte hartzen duten **ikastetxeen kopurua** ere asko ugartu da. Lehenengo ikasturtean **16** ziren. Gaur egun, **46 ikastetxe** dira egitasmoa aurrera eramaten dutenak. Beraz **%187an hazi da** ikastetxeen kopurua.

Azkenik, **haurren kopuruari dagokionez**, 2008-2009. ikasturtean, **2.200 haurrek** jaso zituzten egitasmo honen ekimenak. Gaur egun, guztira, **5.900 haur inguru** dira hauen hartzaileak. Beraz, **%168 gehiago**.

*Ikusten denez, 2008. urtean abian jarri zenetik, Bularretik Mintzora egitasmoaren hedapen kuantitatiboa oso handia izan da. Zehazki, lau aldagai horien batezbesteko gehikuntza **%180koa** izan da: lau urtetan **egitasmoaren eragin kuantitatibo orokorra EAEko herri, eskola, irakasle eta haurren ia hirukoiztu egin da (2,80rekin biderkatu da)**. Datu honek erakusten du, gero eta haur gehiagoren irakurtzeko zaletasuna sustatzen ari garela.*

Azken ondorioa

Aurreko atalean aipatu den bezala, *Bularretik Mintzora* lortzen ari den hedapen maila kontuan harturik, eta egitasmoaren ekimenen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko, erakunde publikoen babesaren izaten jarraitzea behar-beharrezkoa da. Alde batetik, orain arte lortutako aldagaien hobekuntzak mantentzeko eta are, hobetzeko; eta, bestetik, egitasmoaren helburuak ahalik eta haur gehienengana hedatzeko.

Galtzagorri Elkarte
2012ko Urria